

# ‘Euskaldunon Egunkaria’ itxi izana salatzen Euskal Herritik kanpora sortu ziren taldeek ez diote utzi laguntza eta babes emateari prozesuak iraun duen bitartean. Elkartasun ekintza soila baino gehiago ikusten dute eginiko horretan: gizarte sareen indartzea eta autodefentsa kolektiboa.

**Pantxike Agirre**

**M**adrilen, institutu bateko aretoan egin behar zuen hitzaldia Martxelot Otamendik, 2003ko martxoan. Atxiloaldetik irten berri zen *Egunkaria*-ko zuzendaria, eta Espainiako eta Kataluniako hainbat aldetatik deitu zuten kazetaren itxieraz eta atxilotuen egoeraz hitz egiteko. Bezerperan, institutua erabiltzeko baimena kendu zieten antolatzaileei, eta Madrilgo egoitza okupatu batean egin zuen hitzaldia. Zazpi urte geroago, Auzitegi Nazionalan epaiketa amaitu zen egunean, agur afaria egin zuten talde horrek auzipetuei, beren abokatu eta senideei eta hainbat intelektual madrildarrei, Patio Maravillaseko txoko okupatuan. «Leku okupatu batean hasi ginen, eta beste batean amaitu dugu. Zutoinez eutsita dagoen gelan egin genuen afaria, ahal genuen moduan, baina garrantziarik gabeko zerbait zen hori. Agur hunkigarria izan zen, eta elkartasuna alde guztietan sumatzen zen. Denon mesederako izan baita elkartasuna, eta hori da prozesu honetatik guztitik gelditu dena».

Madrilgo taldeko Pedro Casasen hitzekin bat egin dute David Fernandezek, Nacho Escartinek eta Fernando Valiñok, Kataluniako, Aragoiko eta Valladolideko plataformetako kideek, hurrenez hurren. «Harreman hauek ez dira erraz ixtekoak. Elkar lotu gara, eta onean eta txarrean elkarrekin jarraitzea da helburua». Fernandezek hitz horiekin agurtu ziren lau lagunak igandean Lasarten (Gipuzkoa), Bilbora abiatu aurretik, Euskalduna jauregian egin zen *Egunkaria*-ren eskertze ekitaldian parte hartzeko.

## Absoluzioaren bultzada

Esker ona jaso zuten ekitaldi horretan, eta eskerrak beraiek eman zituzten. *Egunkaria*-ren alde eginiko lanarekin adierazpen askatasunaren eta eskubide zibilen aldeko jarrerak indartu egin direla uste dute, eta bat datoz absoluzioak «lanean jarraitzeko oxigeno baloi bat» eman diela. Nork bere arazoak jarri ditu mahai gainean, eta herrialde bakoitzeko errealitate sozialak duen eragina azaldu dute.

Fernandezen irudiko, «eustorribat» eraiki izanaren sentipe-

na dute Katalunian. «Aurretik ikusten genuen adierazpen askatasunaren eta eskubide zibilen kontrako eraso. Baina, *Egunkaria*-ren aurkako prozesua dela medio Madrilgo prentsari alternatibak eraikitzea lortu da —torturaren gaiarekin, adibidez—, eta ahulduta zeuden sare sozialei bultzada bat ematea zigorgabetasunaren kontrako borrokan».

Auzitegi Nazionalan absoluzio epaiak salbuespena direla azpimarratu du Casasek, baina *Egunkaria*-rena lagungarri izango zaiela espero du. «Erabatekoa ez bada ere, garaipen bat lortu izana garrantzitsua da. Madril oso ongi etorriko zaigu, elkar bizkar emanda bizi garelako eta gutako bakoitza inguruan beste bost aulki jartzen saiatzen delako, zailtasun handiz. Zubiak eta elkartasun sareak zabaltzen jarraitu behar dugu, eta espero dut Euskal Herriarekin harremanak estutzeko baliogarria izango dela».

Ildo horri jarraitu dio Escartinek. «Gai hauetaz askatasunez hitz egiten jarraitzeko balio digu absoluzioak. Aragoiko taldean Euskal Herriaren bake eta normalizazioaz hitz egiten hasteko gogoz gaude, eta azken garai honetan beldur asko uxatu ditugula uste dut. Zazpi urte egin ditugu komunikabide bat itxi izana salatzen, eta arrazoia genuela ikusi da; beraz, torturaz hitz egingo dugu, eta agian arrazoia dugula erakutsiko dugu; edota negoziazio mahai bat beharrezkoa dela. Nahi dugunaz eta nahi dugunarekin hitz egiteko gai ikusten dugu geure burua; hori irabazi dugu, eta masa kritikoa zabaltzeko lan egin behar dugu aurrerantzean».

## Komunikabideak

Absoluzioaren berriak Valladoliden izan zuen oihartzunarekin pozik da Valiño. «Guk ez dugu mobilizatorako gaitasun handirik izan, baina informazioa zabaltzea izan da gure egiteko nagusia. Ateneo errepublikanoak kalera- tzen duen aldizkaria azken unean altxatu genuen absoluzioaren berria azalean zabal emateko, eta jendeak zoriendu egin gaitu. Madrildik saltzen diguten informazioari aurre egin dio jendeak, eta interes politikoen indarrak jabetu da».

Espainiako plataformetako ordezkariak kezka berezia agertu dute komunikabideen jarreragatik. «Aginte mediatikoak ezarri-



Talde autodefentsarako balio izan du auziak, eta horregatik diogu denon garaipena izan dela»

«Albiste ona da epaia, salbuespenaren estatuaren logika ez dela garaitezina erakutsi du»

**DAVID FERNANDEZ**  
Kataluniako plataformako kidea

«Informazio bat bahituta dago, eta hori gainditzeko egiten duguna ez da batzuetan ongi uletzen»

«Oinarri bat gelditu zaigu sareak eratzeko eta iraganeko beldur politikoak uxatzeko»

**PEDRO CASAS**  
Madrilgo plataformako kidea

«Nahi dugunaz eta nahi dugunarekin hitz egiteko gai ikusi dugu geure burua; hori irabazi dugu»

«Herri kulturaren aldeko borroka eta hedabideak ulertzeko beste modu batek batzen gaitu»

**NACHO ESCARTIN**  
Aragoiko plataformako kidea

«Madrildik datorren informazioari aurre egin dio jendeak, eta interes politikoez jabetu da»

«Gure ekarpen txikia egiteko prest gaude dena itxi arte eta epaitegi bereziak amaitu arte»

**FERNANDO VALIÑO**  
Valladolideko plataformako kidea

duen blokeoari aurre egitea oso zaila da Madril. Ez dugu bertako egunkaririk, estatukoak baizik. Euskal Herrian abenduan manifestazio handi bat egin zuten egun berean Madril beste batera deitu genuen. Debekatu egin zuten, eta *El País* egunkariaren Madrilgo edizioan ez zuten debekuaren berri eman. Informazio mota bat bahituta dago Madril; geuk osatu behar dugu informazioa, eta horrek dakar ideologian eta hainbat borrokan zurekin bat datorren jendeak oso ongi ez ulertzea *Egunkaria*-ren kasuan eta beste batzuetan egiten duzuna; terrorismoari jokoa egiten diozula esaten dizute, gainera. Horregatik, epaiak asko laguntzen digu. Pertsona batzuentzat bidezkoa dena defenditu dugu, baita guretzat bidezkoa dena ere».

## Talde defentsa

Oso bestelakoa izan da egoera Katalunian, eta hedabide gehienek salatu dute *Egunkaria*-ren itxiera. Hala ere, memoria egiteko eta gertaerak ez ahazteko ahalegina egin behar izan dutela azaldu du Fernandezek. «Zapaterok eta Raxoik itun antiterroristan sartu zuten *Egunkaria*, haiek jarri zuten gerra logika batean, eta Madrilgo egunkariak ez dituzte zuzendu idatzitako astakeria guztiak. Orain badirudi inork ez duela errurik, Juan del Olmo epailea eta Guardia Zibileko kapitain bat izarrei esker elkartu zirela».

Kataluniako gizarteak jarrera prebentiboa izan duela uste du Fernandezek. «Gure arteko elkartasuna bultzatu dugu, giza taldeen artekoa; autodefentsa bilatu dugu. Hizkuntzak garrantzia berezia hartu du ziur aski, diktaduraren pean izan diren hizkuntzak normalizatzeko dituen zailtasunen jabe garelako. Baina auzi honen talde autodefentsarako balio izan du, eta horregatik esan daiteke garaipena denona eta denontzat izan dela». Escartinek bere egin du ideia hori, eta Aragoi ere hizkuntzaren eta kultura propioaren aldeko borroka bat badela gogorazi du.

Adibidea eman du Fernandezek: «Abenduaren 15ean grabitate zentroa aldatu zen bat-batean Sant Jaumetik Madrilera, manifestatzeko debekuagatik. *Egunkaria*-ren kontrako gerra oraindik askoren buruan zegoela jabe-

tu ginen, eta talde kontzientzia hartu».

## Epaiaren berria

Apirilaren 12an epaiaren berri izan bezain pronto, telefono deiak, mezu elektronikoak eta Twitter erabili zuten albiste zabaltzeko. «Pozak gainezka egiten zigun», «tunel luze baten irteera zen», «denon garaipen bat zen», «ezin zen besterik izan». Baina, jarraian, galderak: «Zergatik itxi zuten orduan?»; «nola berreskuratu zazpi urte?»; «noiz eta non hasi zen iruzur hau guztia?». Babes taldeek agiri bat kaleratu zuten elkarrekin, kalteak konpontzeko eta erantzukizunak aitortzeko exijituz. Agiriarekin bat egin zuen Asturiasen *Egunkaria*-ren auziaren berri emateko lan egin duen taldeak. Talde horri esker, hainbat hitzaldi antolatu ahal izan ziren.

«Zuzenbide estatuak etxeko lanak egiteko ditu; egindako kaltea ordaintzeko dago, eta gauzak zeuden lekuan uzteko. Ez da gobernuko ordezkariarik atera azalpenak ematera», azaldu du Fernandezek. «Ezohiko epaia da, zuzenketa bat politika antiterroristaren logikari. 18/98 auziaren epaiketa izan da aurretik, eta laster egingo da Udalbiltzarena. Baina absoluzioa albiste ona da, erakusten duela salbuespenaren estatuaren logika ez dela garaitezina; ez duela dena suntsitzen eta berriz eraikitzeko gai garela, *Egunkaria*-ko langileek egin zuten bezala. Zaila da pentsatzea absoluzio gehiago ekarriko dituela, baina adierazpen askatasunaren defentsa indartu da, epaiak esaten baitu edozein komunikabideren itxiera lege kontrako dela. Pena da beste batzuek epai hori bera eduki ez izana, baina baliteke hemendik aurrera epaile batek bi aldiz pentsatzea euskal komunikabide bat ixtearen gainean».

## Aurrera begira

Valladoliden lanean segitzeko konpromisoa berretsi zuten, absoluzioa ospatzen zuten bitartean. «Hau ez da amaitu, eta gure babes eta elkartasun ekarpen txikia egiteko prest gaude auzia erabat itxi arte eta epaitegi bereziak amaitu arte, besteak beste, Auzitegi Nazionala. Frankismoaren ordena publikoko epaitegiaren oinordeko zuzena da, eta Euskal Herriaren aurka egiteko sortu zen. Ez garena (Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

## 04 Prentsa askatasuna

(Aurreko orrialdetik dator)

izateaz akusatuko gaituzte, baina zorretan gaude *Egunkaria*-k ordezkatu duen guztiarekin eta langile ohiek erakutsi diguten esker onarekin. Horregatik, adi egongo gara aurrerantzean ere», azaldu du Valiñok.

«Guk ez dakigu zer egingo dugun plataformarekin», segitu du Casasek. «Esperientzia hau arrakastatsua izan da, aurreko beste batzuk ez dira ongi irten, baina oinarri bat gelditu zaigu, sareak eratzeko eta gauzak egiteko iraganeko beldur politikoak uxatuta».

Elkartasunak hartu duen ba-

lio eta sare sozialen zabaltzea geroa baliogarria izan daitekeela uste dute beste biek ere. «Hizkuntzaren eta herri kulturaren aldeko borrokak eta komunikabideak ulertzeko beste modu batek batzen gaitu, eta gustatzen zaigu hona etortzen garenean gure aldarrikapenen berri ematea».

Fernandezek gogoratu du elkartasun sarearen ondorio izan zela Athleticen eta Barcelonaren arteko Errege Koparen finalaren jarraipena Vilaweb eta BERRIAK ematea. «Gakoa da gehiengoak nola erantzuten duen gutxiengo boteretsu eta krudel batek egiten duenaren gainean. Bere eskubide-

ak bortxatuta ikusten dituen edonorentzat elkarrenganako elkartasuna baliogarria izatea da esperientzia honen ikasgai nagusia, baina prozesu baten moduan ikusita. 2003ko otsailaren 19an ez zegoen egoera batean gaude orain, harreman historikoak are gehiago estutu dira».



David Fernandez.



Pedro Casas.



Nacho Escartin.



Fernando Valiño.

### 01.

#### Katalunia

Politikan eta gizartean txertatuta

→ 2003ko otsailaren 26an sortu zen Katalunian *Egunkaria*-ren aldeko plataforma: *Per la llibertat d'expressió. Egunkaria endavant!* Ehun lagun batzartu eta manifestu bultzatzaile bat sinatu zuten. Askotariko erakunde, talde sozial, alderdi politiko eta sindikatuen atxikimendua lortu zuten aste gutxira, eta ordutik Kataluniako politikan eta gizartean egon da gaia. Legebiltzarrek *Egunkaria*-ren aldeko mozioa onartu zuen —PP ez beste alderdi guztiek babestu zuten—, eta katalanezko komunikabide guztiek onartu zuten elkartasun adierazpena; gehiengo sindikala eta kultur ordezkariak zabal bat atxiki zaizkio. «Oso transbertsala izan da gure plataforma, eta azkeneko fasean ehun aktibista sozial ezagunek osatutako segimendu batzordeak du ardura; gizarte

**Kataluniako gehiengo zabalak egin du bat babes taldearekin; 100 laguneko segimendu batzordea izan du**

mugimenduak, kazetariak eta juristak izan dira talde horren hiru hankak». Apirilaren 12an diputatu sozialista batek bidali zion mezua gogoratzen du David Fernandezek: *zorgarria*. «Hain izan da tranbertsala Katalu-

niako soziologiaren moldeak ere hautsi baititu; okupen batzarrak eta CIUko diputatuak elkartu dira plataforman. Ez dut uste argazki hori askotan egingo denik berriz. Eskubide zibilen defentsan ados jarri izanaren meritua *Egunkaria*-k berak du». Plataforma orain sare bat da. Ekintzak, agendak egokitzea zailtasuna.

### 02.

#### Madril

Burua agertzeko zailtasunak

→ «Espainiako hiriburu izateagatik ondorio kaltegarri asko pairatzen ditugu Madrilan, eta zaila da burua agertu eta irizpide propioak defenditzea». Pedro Casasek ez du ahazten Madrilan manifestazioa egitea debekatu zirela joan den abenduan. *Egunkaria* itxi izanaren kontra eta adierazpen askatasunaren alde antolatu zuten, eta «terrorismoa goratzeko arriskua» zego-

**Manifestazio debekua jaso zuten, eta epaiketan auzipetu, abokatu eta senideen odoan izan ziren**

ela esan zuen fiskaltzak. Hala ere, Puerta del Solen kontzentratu ziren, *Egunkaria Libre* leloarekin. Hainbat hitzaldi antolatu dituzte, mahai inguru bat, prentsaurreko bat, jaialdiak; epaiketan izan dira auzipetu eta senideei babes ematen, eta ospakizun ekitaldi bat prestatzen ari dira maiatzaren 11rako. Alderdien Legea gaitzesteko sortutako Askatasunen eta Elkarrizketaren Aldeko Sarean hasi ziren *Egunkaria*-ren alde lanean 2003ko martxoan, baina talde horrek hainbat gorabehera izan ditu, eta egunkariaren aldeko lanari berriz ekiteko plataforma bat sortu zuten epaiketa hastera zihoa-nean. 50en bat taldek babestu dute, eta Madrilgo intelektual ezagun hainbatek. «Taldea ongi funtzionatu du, arrakastatsua izan da eta, gainera, epaiketa ongi amaitu da. Aurrera begira baliogarria izango zaigula pentsatzen dut, eta iraganeko beldurrak uxatuko ditugula», uste du Casasek.

### 03.

#### Aragoi

Mugimendu sozial anitzen babesa

→ Egunkariaren Aldeko Aragoiko Plataforma euskarazko kazetaren itxierarekin batera jarri zen lanean. Talde eta pertsona anitzek osatutako mugimendu sozial baten barruan sortu zen, eta haien parte-hartzearekin funtzionatu du. «Sindikatuak, auzo elkarteak, komunikabide alternatiboak, talde kulturalak, abokatuak eta ezkerreko politikariek osatzen dugu taldea. Adin eta arlo oso desberdineko jendea gara, eta horrek aberastasuna eta jarraipena ematen dio. *Egunkaria*-ri buruzko bilerak esperientzia handiko abokatu baten bulegoan egiten genituen, baina hitzaldi eta bestelako ekitaldietara jende gazte asko etortzen zen, eta aretoak betetzen genituen». Aragoi jasotako atxikimendu pertsonalen artean Ricardo Vazquez Prada kazetariarena nabarmendu du Nacho Escartinek.

**Talde eta pertsona anitzek osatutako mugimendu sozial baten barruan sortu zen, eta haren barnean jardun du**

Hitzaldi, mahai inguru eta kontzentrazioak antolatu izan dituzte, eta ez dute arazo berezirik izan, «nahiz Martxelo Otamendi etorri den aldiro entzuleen artean eseritako polizia pareari eskatu behar izan diogun gelatik irteteko». Ez da lehen aldia Euskal Herriarekin elkartasunez antolatu direna, eta, Escartinek adierazi duenez, *Bakearen eta Elkarrizketaren Aldeko Batzordea* izenarekin Euskal Herriaren egoera ezagutarazten jarraitzeko asmoa dute.

### 04.

#### Valladolid

Informazioa zabaltzeko lanean

→ «Euskal Herriak diktaduraren kontra lehenik eta bere aldarrikapen historikoen alde gero egin duen borroka goretsi izan da beti Valladolideko inguru batzuetan; hizkuntzaren, kulturaren eta erabakitze eskubidearen aldeko borroka, alegia. Babes edo kidetasun hori gaizki ikusten dutenak ere badira, garai bakoitzeko Rubalcabak ez dakit zer astakeria egotziko dieten beldur di-

**Ateneo errepublikanoa izan da taldearen elkargune eta informazioa zabaltzeko bitartekoa**

relako. Hala, *Egunkaria* itxi eta gero ez genuen zalantzarik egin Martxelo Otamendiri eskatzeko Valladolidera etor zedin Del Olmo epailearen erabakiari buruz eta jasandako torturei buruz hitz egitera». Hiriburuko udaletxeko aretoa bete zela gogoratzen du Fernando Valiñok, kanpoan eskuin muturreko talde bat protestan zegoela. Ordutik aurrera, gertutik jarraitu dute *Egunkaria*-ren auziaren prozesua. «Informazioa zabaltzea izan da gure egiteko nagusia, komunikabide ofizialen informazioa kontrastatu ahal izateko. Lan horrekin taldea sendotzea lortu genuen». Duela sei urte Valladolideko Ateneo errepublikanoa sortu zuten, eta hura izan zen «auziaren inguruko jarduerak lehen lerroan jartzeko plataforma egokia». *Egunkaria Libre* eta *Un juicio sin razón* leloak erabili dituzte, eta, Valiñok nabarmentzen duenez, ordua arte Euskal Herriaz hitz egitera auzartu ez zen jendea hurbildu zen.